Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 63
Nork aurkeztu du: Santurtziko Udala
Aurkezpen data: 2022/02/09

Sugerencia Nº: 63
Presentada por: Ayuntamiento de Santurtzi
Fecha de presentación:09/02/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Santurtzi udalerriak gogorarazi du interesa duela Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea abian jartzeko eta egun oraindik ere Santurtziko tren-geltokiaren eta portu-sistema orokorraren artean dagoen trenbide-sarea kentzeko.

2. Erabat ados dago Portu Sistema Orokorraren Plan Berezi berri bat idazteko proposamenarekin; izan ere, indarrean dagoen Plan Bereziak ez du egungo errealitatea jasotzen, ez eremuaren azalerari dagokionez, ezta berekin dakartzan ingurumen-eraginei dagokienez ere.

3. Eskatzen du hobeto zehazteko eta mugatzeko "G eremuak" (landazabal atlantikoetan, Serantes-Lucero-Mello) eta Serantes-La Arena Parke Metropolitarra.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Bat gatoz udalak jarduera horiek egin daitezen duen interesarekin eta eskerrak ematen dizkiogu ADIFen partzelen kudeaketa delaeta eman duen informazioagatik.

2. Eskerrak ematen dizkiogu egindako iruzkinagatik. Alegazio-egileak egungo errealitatea eta portuko azaleraren ingurumen-eraginak direla-eta egindako hausnarketek berretsi egiten dute aipatutako Plan Berezia idatzi beharra, LPPn ezartzen den moduan.

3. G motako zona akustikoei dagokienez, jakinarazten da kendu egingo direla hasierako onarpeneko dokumentuan gai horrekin lotuta jasota dauden arau-aipamenak; izan ere, Eus-

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se recuerda el interés del municipio de Santurtzi en la puesta en marcha de la Variante Sur ferroviaria y la eliminación del tramo de red ferroviaria todavía existente entre la estación de tren y el sistema general portuario de Santurtzi.

2. Se muestra una total conformidad con la propuesta de redacción de un nuevo Plan Especial del Sistema General Portuario, ya que el Plan Especial vigente no recoge la realidad actual, tanto en lo que se refiere a la superficie del ámbito como a las afecciones ambientales que supone.

3. Se solicita una mayor concreción y delimitación de las "Zonas G" (en campiñas atlánticas, Serantes-Lucero-Mello) y del parque metropolitano "Serantes-La Arena".

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Se comparte el interés municipal por que se lleven a cabo las actuaciones descritas y se agradece la información aportada en relación con la gestión de las parcelas de ADIF.

2. Se agradece el comentario realizado. Las consideraciones realizadas por el alegante en relación con la realidad actual y las afecciones ambientales de la superficie portuaria ratifican la necesidad establecida en el PTP de la redacción del citado Plan Especial.

3. En lo que respecta a las zonas acústicas de tipología G, se informa que se eliminarán las referencias normativas relativas a este aspecto que recogía el documento de aprobación

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Q4VL-6QC1-M73H-DNMZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

kal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak du eremu horiek mugatzeko eta onartzeko eskumena.

Bestalde, Serantes-La Arena Parke Metropolitarra memoriaren IV. eranskinean deskribatuta dago, bai kokapenari, gutxi gorabeherako mugei eta deskribapenari dagokienez, bai antolamendu-irizpide eta -helburuei dagokienez ere. Grafikoki, parkea plano hauetan dago irudikatuta:

- 03. Azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarriak
- 03.2. Azpiegitura berde metropolitarra: zerbitzu ekosistemiko kultural garrantzitsuak dituzten elementuak
- 11. Ekipamenduak
- 19. Lurralde-mailako kultura-ondarea

inicial, ya que, según el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV, la competencia para delimitar y aprobar estas zonas corresponde al Gobierno Vasco.

Por su parte, el parque metropolitano "Serantes-La Arena" está definido en el anexo IV de la memoria, tanto en lo referente a su localización, delimitación orientativa y descripción, como en los criterios y objetivos de ordenación. Gráficamente, el parque se encuentra representado en los planos:

- 03. Condicionantes superpuestos de la infraestructura verde
- 03.2. Infraestructura verde metropolitana: elementos con servicios ecosistémicos culturales de relevancia
- 11. Equipamientos
- 19. Patrimonio cultural de escala territorial

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Q4VL-6QC1-M73H-DNMZ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus